


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE GALLE GALLEGO. NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA

GARI-JOTZEA XX. MENDE HASIERAN, UITZIN

Argazkia udan atera zuen Jose Gallek, XX. mendearen hasieran, Uitzin, Larraungo bailaran. Gari-jotzearen unea da, non lau mandok, laborari batek gidaturik, laboreak zapaltzen zituzten. Ondoren, txirikorda bat jartzen zitzairen, eta arrastaka eramaten zituzten biraka, garia birrintzeko. Hori gertatzen zen bitartean, argazkian ikus daitekeenez, haur talde bat arretaz begiratzen ari zen mandoen mugimenduei. Ohikoa zen, behin narrak jarrita, haurrak txirikordan zehar haietara igotzea, jarduera hori beraientzako jolas bihurtuz. Prozesu hori amaitu ondoren, dena pilo batean biltzen zen, eta eskuz, palekin edo sardeekin aiera botatzen zen; horrela, alea leku berean erortzen zen eta lastoa alde batera mugitzen zen.